# Ahozko adierazpena ipuina Olentzero





@susanaalbancess

Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com



Olentzerok umeak nola portatzen ziren jakin nahi zuen, beraz, egunero mozorrotzen zen ezagutu ez zezaten eta herri eta hirietako kaleetan ibiltzen zen.





Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com

Egun batean, oso herri politeko kaleetan barrena zebilela, ohartu zen kaleek fruta izenak zituztela.



(Haurrek fruta desberdinen izenak esan beharko dituzte).

albances.wordpress.com

Itzulpena: @pausozpausopt

Bere kale estuetatik paseatu zen, haurrei leihoetatik begiratuz. Herrian ume asko bizi ziren eta Olentzerok izen guztiak ezagutzen zituen.



(Haurrek haur desberdinen izenak esan beharko dituzte).

Itzulpena: @pausozpausopt

albances.wordpress.com

Olentzero oso nekatuta zegoen ibiltzeaz, eta, beraz, inor ez zegoen etxalde bat ikusi eta aulkietako batean eseri zen atseden hartzeko.

Atseden hartu zuenean, etxaldeko animaliak agurtzera hurbildu zen.



(Haurrek baserri batean bizi diren animalien izena esan beharko dituzte).

albances.wordpress.com

Itzulpena: @pausozpausopt

Tripak orroka hasi zitzaizkion, eta jatetxe batean bazkaltzera sartzea erabaki zuen. Zerbitzariak egun hartako menua eskaini zion, baina hainbeste aukera zegoen, non ez baitzekien zer aukeratu. Lehenik eta behin, koilararekin jan behar zuen plater bat nahi zuen. Zer jan zezakeen Olentzerok?



(Haurrek koilararekin jan behar ditugun plateren izenak esan beharko dituzte)

albances.wordpress.com

Itzulpena: @pausozpausopt

Bigarrenez, txahal xeherra eta postrerako zerbitzariak eskaintzen zizkion postre guztiak nahi zituen. Zein gozozalea den gure Olentzero!







(Haurrek postreen izenak esan beharko dituzte).

albances.wordpress.com
Itzulpena: @pausozpausopt

Bazkaltzen amaitu zuenean, herrian zehar paseatzen jarraitu zuen, haurrak zein esanekoak ziren egiaztatuz. Denak oso ondo portatzen ziren beren etxeetan, eskolako lanak egiten zituzten, bazkaldu ondoren hortzak garbitzen zituzten, jostailuak partekatzen zituzten anaiekin.





(Haurrek ondo egiten dituzten gauzak esan beharko dituzte)

albances.wordpress.com

Itzulpena: @pausozpausopt

Olentzero oso pozik zegoen, beraz, bere astoa hartu eta etxera joan zen haurrek idatzitako gutunak irakurtzen jarraitzera eta opariak biltzera, abenduaren 25ean haur guztiek jostailuak zuhaitzean izan zitzaten.



albances.wordpress.com

Itzulpena: @pausozpausopt